**OSAKIDETZAREN DESEGITE ETA PRIBATIZAZIOAN SAKONDU EGITEN DU OSAKIDETZAK IURRETAN ERAIKI NAHI DUEN PLATAFORMA LOGISTIKOAK**

Osakidetzak denbora darama orain arte enplegu publikoarekin garatu diren zerbitzuak pribatizatzen saiatzen. Pribatizazio ereduaren adibide garbia da Iurretan eraiki nahi duten plataforma logistikoa. Eraikuntza obra- eta zerbitzu-kontratuak kanpora aterata egin nahi da, eta, ondorioz, lizitazioa eginda, erakundearen egitura publikoa murrizten ari da, hau da, enpresa pribatuak(beren interesekin) gero eta leku handiagoa hartzen ari dira Osakidetza den pastel erraldoi horretan.

Iurretan biltegi handi bat egin nahi da, Osakidetzako zentro guztiak, ospitaleak zein lehen mailako arretako zentroak, materialezhornitzeko. Lan horiek egiteko eraikitako eraikina titulartasun publikokoa izango da, baina ustiapena eta kudeaketa enpresa pribatuei eman nahi zaie.

Enpresa pribatuek orain arte sareko 27 biltegietan egiten ditugun lan guztiak egin nahi dituzte, gure lanpostuen jarraitutasunaarrisku larrian jarriz.

Zuzendaritzak ez die erantzuten planteatzen zaizkion gaiei, eta orain arte ez daukagu ezer kontratua arautuko luketen pleguakargitaratzeaz gain. Bertan idatzitakoa mehatxu zuzena da kategoria desberdinetako dozenaka lanposturentzat.

Erakundearen zuzendaritzaren isiltasun susmagarriaren aurrean, agerian geratu da horrek sare osoan dozenaka biltegi amortizatzea edo ahalik eta gehien murriztea dakarrela, bai eta lanpostuak desagertzea ere, zeladore eta administrazio-langilegisa, zerbitzu orokorretako gidari gisa, etab.; hau da, lanpostu publikoak desagertzen dira, enpresa pribatuari emateko, horrekdakarren guztiarekin.

Hori dela eta, ELA, LAB, CCOO eta ESK sindikatuek plegu horien aurka egin dute KEAOn (kontratuen inguruko errekurtsoen administrazio-organoa), baina organo horrek ezetsi egin ditu aurkaratze horiek. Beraz, EAEAN garatuko den ibilbide juridikoaz gain, Osakidetzan, erakunde publiko gisa, kategoria guztiak zerbitzuaren funtzionamendu eta kalitate egokirako beharrezkoakdirela aldarrikatzeko borroka eta beharra baino ez zaigu geratzen.

Hori dela eta, Arabako biltegietako plantilla antolatzen ari gara zerbitzu publiko bat, publikoa izaten jarrai dezan eta,beharrezkoa balitz, grebarako deia egiten.

Elkarretaratzeekin hasiko gara, **asteazkenero 12:00etan**, honela:

Txagorritxuko Ospitalea **ekainaren 19an eta uztailaren 10ean**.

Santiago Ospitalea: **ekainaren 26an eta uztailaren 17an.**

Zentralak: **uztailaren 3an eta 24an.**

**Arabako Espezializatuko Arretako Junta**
**Arabako Lehen Arretako Junta**
**Santiago Ospitaleko enpresa komitea**

## LA PLATAFORMA LOGÍSTICA QUE OSAKIDETZA QUIERE CONTRUIR EN IURRETA, PROFUNDIZA EN EL DESMANTELAMIENTO Y PRIVATIZACION DE OSAKIDETZA

Osakidetza lleva tiempo intentando privatizar servicios que hasta el momento se han desarrollado con empleo público. Un ejemplo claro del modelo de privatización, es la plataforma logística que quieren construir en Iurreta. La construccción, se quiere llevar a cabo por medio de la externalización de contratos de obras y de servicios y su consiguiente licitación, se está mermando la estructura pública del Ente, es decir, las empresas privadas (con sus intereses) cada vez están ganando más terreno en este enorme pastel que es Osakidetza.

lo que se pretende en Iurreta, es un enorme almacén que proveerá de material a todos los centros de Osakidetza, tanto hospitales como centros de atención primaria. El edificio construido para realizar esas tareas será de titularidad pública, pero se pretende dar su explotación y gestión a empresas privadas.

Las empresas privadas aspiran a realizar todos los trabajos que hasta este momento realizamos los 27 almacenes de la red, poniendo en serio riesgo la continuidad de nuestros puestos de trabajo.
La dirección no responde a las cuestiones que se le plantean y hasta este momento no tenemos nada más allá de la publicación de los pliegos que regirían el contrato. Lo redactado en el mismo, supone una amenaza directa a decenas de puestos de trabajo de diferentes categorías.

Ante el silencio sospechoso de la dirección del Ente evidenciamos que esto supone la amortización, o su reducción a la mínima expresión, de decenas de almacenes en toda la red, así como la desaparición de puestos de trabajo, como personal celador y de administración, conductores de servicios generales, etc… es decir, desaparecen puestos de trabajos que son públicos para otorgarlos a la empresa privada con todo lo que esto conlleva.

Por ello, los sindicatos ELA, LAB, CCOO y ESK han impugnado estos pliegos ante el OARC (órgano administrativo de recursos contractuales) pero este órgano ha desestimado estas impugnaciones, por lo que, aparte del recorrido jurídico que se desarrollará en el TSJPV, sólo nos queda la lucha y la necesidad de reivindicar que en Osakidetza, como organismo público, todas las categorías son necesarias para un correcto funcionamiento y calidad en el servicio. Por ello, la plantilla de los almacenes de Araba se están organizando para preservar que un servicio público, siga siendo público, convocando huelga si esto fuera necesario.

Comenzaremos con las concentraciones, **TODOS LOS MIÉRCOLES A LAS 12:00 HORAS**, de la siguiente manera:

Hospital de Txagorritxu **los días 19 de junio y 10 de julio.**

Hospital Santiago: **26 de junio y 17 de julio**.

Centrales: **3 y 24 de julio.**

**Junta de Atención Especializada de Araba**
**Junta de Atención Primaria de Araba**
**Comité de empresa del Hospital Santiago**